

# CARITAS BIZKAIAREN KANPAINA

Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

KARITATE EGUNA:  
«HATOR! ESTÁS EN CASA.»

2024KO BAGILAREN 2A

KRISTOREN GORPUTZ-ODOL  
GUZTIZ SANTUA (B)



## Liturgia lagungarriak

### Atarikoak:

- Gogoratu ezinbesteko dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartza.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearren arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

# CAMPAÑA DE CARITAS BIZKAIA

DÍA DE CARIDAD:  
«HATOR! ESTÁS EN CASA.»

2 DE JUNIO DE 2024

SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE  
DE CRISTO (B)

## Subsidios litúrgicos

### Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizás convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

## SARRERAKO OHARRA

Senide maiteok: gaur, Kristoren gorputz-odolaren gorentasuna ospatzen dogu. Jesus, Jauna, geuri bizia emoteko hil eta berbiztu zana, alkartzen garan bakotxearen dago gure artean, sakrifizioa egin baino lehenagoko gauean itxi euskun kinu ha berregiteko. Bere gorputz-odolaren bitartez, Eukaristian, janari moduan eskaintzen deusku bere burua, beti-beti beragaz bat eginda bizi gaitezan eta berak maitetu gaituan lez maitetzen ikasi daigun.

## MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Celebramos hoy la solemnidad del Cuerpo y Sangre de Cristo. Jesús, el Señor, muerto y resucitado para darnos vida, se hace presente en medio de nosotros cada vez que nos reunimos para repetir aquel gesto que él nos dejó la noche antes de su entrega. Con su Cuerpo y su Sangre, en la Eucaristía, se nos da como alimento para que vivamos siempre unidos a él y aprendamos a amar como él nos ha amado

Gaur, Karidadearen Eguna be bada. Jesusek pazkoko afarian euki eban kinua eguneratzeko deia egiten jaku, baita geure eguneroko bizimoduan alkarri karidadea egiten segiduteko be. Hau da, zatitzen dan eta gure senideon artean eta, batez be, txiroenen zein zaurgarrienen artean banatzen dan ogia. Caritasek ikusarazo egiten deusku zelako balioa daukan doakotasunak, voluntariotzak eta haren lagunza jasoten dabenen artean daukan eragin on-onak, etxeen dagozala sentidu daien.

Eukaristia ospatu daigun, Kristoren maitetasun handiena, eskuzabaltasun handiena eta sakrifizio handiena ospatu daiguzan.

## SARRERAKO KANTUA

## ABADEAREN AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bividuna, izan bedi zuokaz.

## DAMU OTOITZA

Gero eta handiagoa dan individualismoaren aurrean, auzoetako anonimatuaren aurrean eta inguruau daukagun jente askoren errealdadearen ganeko ardurabakotasunaren aurrean, konbita jasoten dogu, geure erkidegoetan bertan beste batzuekaz izateko deia sentiduteko, gizakiokaz zerikusia daukan guztiak ardura deuskulako. Bihurrerearen grazia behar dogu. (Isiluneak).

- Zu, Eukaristian oso-oso maite gaituzuna: erruki, Jauna.
- Zu, Eukaristian txirotasunaren eta umiltasunaren estalpean gugana zatozana: Kristo, erruki.
- Zu, Eukaristian betiko bizia emoten deuskun Ogia zarana: erruki, Jauna.

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (EX 24, 3-8)

Lehenengo irakurgaian, entzun daigun Jainkoak Israelgo herriagaz egindako itunaren adierazgarri izan gura eban erritua, guk geuk bizi doguna aurreratzen dau-eta.

Hoy es también Día de la Caridad. Se nos invita a actualizar el gesto de Jesús en la cena pascual, y a seguir en nuestra vida diaria, haciéndonos caridad, pan que se parte y reparte entre nuestros hermanos y hermanas, especialmente las más pobres y vulnerables. Cáritas nos hace ver el valor de la gratitud, el voluntariado y el impacto tan positivo que tiene en las personas que acompaña para que sientan que están en casa.

Celebremos la Eucaristía, celebremos el mayor amor, la mayor generosidad y la mayor entrega de Cristo.

## CANTO DE ENTRADA

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con vosotros.

## ACTO PENITENCIAL

Frente al individualismo creciente, al anonimato en los barrios, a la indiferencia ante la realidad de muchas de las personas que nos rodean, recibimos la invitación a sentir dentro de nuestras comunidades la llamada a ser con otras personas, porque nada de lo humano nos es indiferente. Necesitamos la gracia de la conversión. (Instantes de silencio)

- Tú, que en la Eucaristía nos amas hasta el extremo: Señor, ten piedad.
- Tú, que en la Eucaristía nos sales al encuentro revestido de pobreza y humildad: Cristo, ten piedad.
- Tú, que en la Eucaristía eres el Pan que da la vida eterna: Señor, ten piedad.

## MONICIÓN A LA 1<sup>a</sup> LECTURA (EX 24, 3-8)

Escuchemos en la primera lectura el ritual que quería significar la alianza de Dios con el pueblo de Israel y que anticipa lo que nosotros vivimos.

## CARITASEN KANPAINA

### OHARRA 2. IRAKURGAIARI (HEB 9, 11-15)

**Hebrearentzako gutunaren egilearen arabera, Kristok barritu behar ez dan itun barri eta betikoa egin dau. Berak bere burua eskaini dau, eta danontzako barruko garbikundea lortu dau.**

### JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Otoitz egin deiogun Jainkoari, miserikordiaz betetako Aiteari, Jesukristoren bitartez bere maitetasun handi-handia adierazo deusku-eta.

- Geure erkidego kristinauen alde, berezko alkargunea izan gaitezan, gaitasunak agirian jarten lagundu daigun eta jasotako doeak garatzeko aukerea emon daigun. Entzun arren, Jauna.
- Aurrera egiteko laguntzea eta babesa topetan ez dabezanen alde, beti-beti Caritasek euren egoerea agirian jarri daian, baita banakako eta erkidegoko konpromisoak, doakotasunak eta bere ekintzearen bidez egiten dauan zerbitzuak bizitza askotan daukien eragina be. Entzun arren, Jauna.
- Gobernetan dabenen alde, alkartasunaren zein bakearen alde lan egin daien eta jentearen duintasunaren alde egin daien. Entzun arren, Jauna.
- Eukaristia ospatzen dogunon alde, laguntasuna eta agerpena balorau daiguzan, preminea daukiendik hur dagoan eta hurkoari maitetasuna eskaintzen deutsan erkidego moduan lotzen gaitue-eta. Entzun arren, Jauna.

**Jainko, Aita ona, entzun gure otoitza eta lagundu eiguzu berton ospatzen doguna egunero-egunero bizitzen eta jasoten dogunaren arabera jokatzen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

### CARITASEN ALDE DIRUA BATU AURREKO OHARRA

**Maitetasunean sinisten dogu, persona bakotxagaz konpromisoa dukan karidadea dalako eta errealdadea eraldatzen daualako. Caritasen era bateko eta besteko ekimenei emon deiegun babesea.**

## CAMPAÑA DE CÁRITAS

### MONICIÓN A LA 2<sup>a</sup> LECTURA (HEB 9, 11-15)

Según el autor de la carta a los Hebreos, Cristo ha sellado una alianza nueva y eterna que no será necesario renovar. Él se ha ofrecido a sí mismo y ha obtenido para todos la purificación interior.

### ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, Padre rico en misericordia, que nos ha manifestado su inmenso amor en Jesucristo.

- Por nuestras comunidades cristianas, para que seamos un espacio natural de encuentro, ayudemos al descubrimiento de capacidades y demos oportunidad para desarrollar los dones recibidos. Roguemos al Señor.
- Por las personas que no encuentran el apoyo y la oportunidad para salir adelante, para que Cáritas no deje de hacer visible su situación y también el impacto que tiene en muchas vidas el compromiso individual y comunitario, la gratuidad y el servicio que realiza con su acción. Roguemos al Señor.
- Por quienes gobiernan, para que trabajen por la concordia y la paz, tomando partido por la dignidad de las personas. Roguemos al Señor.
- Por quienes celebramos la eucaristía, para que valoremos el acompañamiento y la presencia que nos vincula como comunidad que está cerca de las personas que lo necesitan y que ofrece el amor al prójimo. Roguemos al Señor.

Dios, Padre bueno, escucha nuestra oración y ayúdanos a vivir cada día lo que aquí celebramos y a ser consecuentes con lo que recibimos. Por Jesucristo, nuestro Señor.

### MONICIÓN A LA COLECTA EN FAVOR DE CÁRITAS

Creemos en el amor que se convierte en caridad comprometida con cada persona y que transforma la realidad. Colaborar con Cáritas es trabajar por la justicia. Respaldemos las diversas iniciativas de Cáritas.

# CARITASEN KANPAINA



Bete-betean parte hartu daiegu bertako voluntario lez, jentearen arteko laguntasuna funtsezkoa dala kontuan hartuta. Eskerrik asko orain gure diru-bilketan egin dozuen ekarpenagaitik.

## JAUNARTZE ONDORENGO ISILUNEAN

Zuk konbita egiten deuskuzu, Jauna,  
zure mahaian baldintza barik jesarri gaitezan.  
Zuk konbita egiten deuskuzu, Jauna,  
beti-beti zure ahotsa entzuten jakin daigun.

**Erantzuteko, konbidau egin gaituela jakin behar dogu**  
**Erantzuteko, deia jaso dogula jakin behar dogu**  
**Erantzuteko, geure baitan sarrarazoten gaituen ikara guztiak albo batera ixteko guraria euki behar dogu.**

**Erantzuteko, biziari eutsi behar deutsagu tinko eta oparia izango balitz lez ospatu behar dogu egunero**

**Erantzuteko, ez dogu gorantz begiratu behar barrurantz edo alboko bidelagunaganantz baino.**

**Erantzuteko, aurreretxi eta irazki barik begiratu behar dogu, ez deuskuelako ezer ikusten ixten**  
**Erantzuteko, jairako jantzi ona euki behar dogu bihotza janzteko eta kanporantz urten daian.**

Zuk konbita egiten deuskuzu, Jauna,  
zure mahaian baldintza barik jesarri gaitezan.  
Zuk konbita egiten deuskuzu, Jauna,  
beti-beti zure ahotsa entzuten jakin daigun.

Salomé Arricibita

## ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Aldaketarako eragileak izan gaitezan eta duintasunez betetako personea geure begiradearen, berbearen eta ekintzearen erdigunean ipinteko gai izan gaitezan. Jainkoak personakan eta Sorkuntzearen ganerakoan daukan agerpenaren inguruko maitetasuna bizi daigun.

Zoaze Jaunaren bakean.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

Podemos formar parte activa de su voluntariado, donde el acompañamiento entre personas es fundamental. Gracias por vuestra aportación ahora en la colecta que hacemos.

## EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Tú nos invitas, Señor,  
a sentarnos a tu mesa sin condición.  
Tú nos invitas, Señor,  
que sepamos escuchar siempre tu voz.

Para responder hay que saberse invitado para responder hay que saberse llamado para responder hay que querer dejar a un lado todos los miedos que nos hacen encerrarnos.

Para responder hay que aferrarse a la vida y celebrar como un regalo cada día para responder no hay que mirar hacia arriba sino hacia adentro o al que a mi lado camina.

Para responder hay que limpiar la mirada de prejuicios y filtros que no dejan ver nada para responder, un buen traje de fiesta que vista el corazón para que salga hacia afuera.

Tú nos invitas, Señor,  
a sentarnos a tu mesa sin condición.  
Tú nos invitas, Señor,  
que sepamos escuchar siempre tu voz.

Salomé Arricibita

## DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

Seamos agentes de cambio capaces de poner a la persona, plena de dignidad en el centro de nuestra mirada, palabra y acción. Experimentemos el amor a la presencia de Dios en las personas y en el resto de la Creación.

Podéis ir en paz.